**LASARTE-ORIA**
UDALA-AYUNTAMIENTO

# UDALBATZARRA/PLENO MUNICIPAL Nº 16/2017

| | |
|---|---|
| LASARTE-ORIAKO UDALBATZARRAK **2017 KO AZAROAREN 24AN** EGINDAKO **EZ OHIKO BATZARRALDIAREN** AKTA. | ACTA DE LA **SESIÓN EXTRAORDINARIA** CELEBRADA POR EL PLENO MUNICIPAL DEL AYUNTAMIENTO DE LASARTE-ORIA EL DÍA **24 DE NOVIEMBRE DE 2017.** |

| ETORRITAKOAK: | ASISTENTES: | |
|---|---|---|
| ALKATE LEHENDAKARIA:<br>ALCALDE-PRESIDENTE: | D. Jesús Zaballos de Llanos jn. | (PSE-EE-PSOE) |
| ALKATEORDEAK:<br>TENIENTES DE ALCALDE: | Dª Lourdes Acevedo Beldarrain and. | (PSE-EE-PSOE) |
| | D. Agustín Valdivia Calvo jn. | (PSE-EE-PSOE) |
| | Dª Maite Iglesias Sánchez and. | (PSE-EE-PSOE) |
| | D. Jesús Alonso Ocáriz jn. | (PSE-EE-PSOE) |
| | Dª Nuria Fernandez Castrillo and. | (PSE-EE-PSOE) |
| ZINEGOTZIAK:<br>CONCEJALES: | D. José Mª Urdampilleta Zubitur jn. | (PSE-EE-PSOE) |
| | D. Pablo Barrio Ramirez jn | (EH BILDU) |
| | D. Gorka Lizarraga Erro jn. | (EH BILDU) |
| | Dª Estitxu Alkorta Barragán and | (EAJ-PNV) |
| | D. Jon Antxordoki Rekondo jn. | (EAJ-PNV) |
| | D. Arkaitz Naya Carrasco jn. | (ADLOP) |
| | D. David Ares Rodriguez jn. | (ADLOP) |
| IDAZKARIA:<br>SECRETARIO: | D. Fco. Xabier A. Egea Jauregi jn. | |

| EZ ETORRIAK: | NO ASISTENTES: | |
|---|---|---|
| KONTUHARTZAILEA:<br>INTERVENTOR: | D. Ion Murua Guinea jn. | |
| ZINEGOTZIAK:<br>CONCEJALES: | Dª Leire Elizegi Beloki and. | (EH BILDU) |
| | Dª Kristina Bernal Etxeberria and. | (EH BILDU) |
| | Dª Alicia Garcia Patino and. | (ADLOP) |
| | D. Alejandro Sáenz Muriel jn. | (PP) |

Lasarte-Oriako Udaletxeko Batzar-Aretoan, 2017ko AZAROAREN 24ko 13:30 zirelarik, aldez aurretik horretarako deialdia eginda, Lasarte-Oriako Udalbatzar osoa bildu zen, Jesús Mª Zaballos de Llanos Alkate jaunaren lehendakaritzapean, gorago aipatzen diren alkateordeak eta zinegotziak bertan zirela, eta nik urgatzita, Francisco Xabier A. Egea Jauregi idazkari jaunak, geroago esango diren erabakiak hartzeko.

En la Sala de Plenos del Ayuntamiento de Lasarte-Oria, siendo las 13:30 horas del día 24 de NOVIEMBRE de 2017, previa citación al efecto, se reunió el Pleno Municipal del Ayuntamiento de Lasarte-Oria, bajo la Presidencia del Sr. Alcalde D. Jesús Mª Zaballos de Llanos, con la asistencia de los Tenientes de Alcalde y Concejales que arriba se relacionan, y asistidos de mí, el Secretario D. Francisco Xabier A. Egea Jáuregui, para tomar los acuerdos que luego se dirán.

Udalbatzarra eratzeko "quorum" nahikoa badagoenez gero, Alkate jaunak eratua deklaratzen du udalbatzarra, eta, haren aginduz, bilkurako gai-zerrendan sartutako gaiak tratatzeari ekiten zaio.

Existiendo "quórum" suficiente para la constitución del Pleno, el Sr. Alcalde declara constituido el Pleno y de su orden se pasa a tratar sobre los asuntos incluidos en el Orden del Día.

**1.- LASARTE-ORIAKO UDALAREN BIDE-SAREKO GARBIKETAREN ZERBITZUA ETA BESTE ANTZEKOAK KONTRATATZEKO ESPEDIENTEA ONARTZEA.**

**1.- APROBACIÓN DEL EXPEDIENTE DE CONTRATACIÓN DEL SERVICIO DE LIMPIEZA VIARIA Y OTROS AFINES DEL AYUNTAMIENTO DE LASARTE-ORIA.**

---

*Idazkariak emendakin tekniko bat aurkezten du pleguetan txertatzeko, apirilaren 4ko 3/2016 legean oinarrituz, kontratazio publikoetan klausula sozial zehatz batzuk txertatzeren ingurukoak.

*El Sr. Secretario presenta una enmienda técnica para introducirlo en los pliegos, en base a lo dispuesto en la Ley 3/2016, de 7 de abril, para la inclusión de determinadas cláusulas sociales en la contratación pública.

Bozkatzera jarrita, Lasarte-Oriako Udalbatzarrak AHO BATEZ **ONARTU** egiten du hura.

Sometida a votación, el Pleno del Ayuntamiento de Lasarte-Oria por UNANIMIDAD **APRUEBA** la misma.

---

*EH BILDU-k emendakin bat aurkezten du pleguetan txertatzeko.

*EH BILDU presenta una enmienda para introducirla en los pliegos.

<u>*EMENDAKINA*</u>

*1.- Kontratazio berrietan Gipuzkoako Lan Hitzarmena aplikatzea.*

*2.- Kontratazio berrietan kontratatutako langileen erdia emakume edota epe luzeko langabe izatea.*

Barrio jaunak hartzen du hitza eta esaten du aurreko ostiralean lan bilera bat egin zela pleguen aspektu teknikoak eta administratiboak lantzeko teknikariarekin. Aipatzen du lan hori aurretik egin balitz askoz hobe izango zela. Gaineratzen du bilera horretan denek begi onez ikusten zituztela klausula sozialak sartzea plegu horietan, eta hala planteatu zutela, puntuatzea eta sartzea. Printzipioz adostasun horretan geratu ziren, baina gero batzordean teknikariak esan ziela legez ez zela posible klausula horiek ezartzea. Jarraitzen du esaten gero begiratuta, hilabete honetan bertan estatuko buletin ofizialean, lege bat agertzen dela, non, dirudienez klausula sozialak sartzeko bidea irekitzen duten. Dena dela, legea oso luzea da, mila elementu daude bertan, eta batez ere oraindik ez dago indarrean. Beraz, nahiz eta lege horren babesa egon daitekeen halako klausulak pleguetan sartzeko, indarrean ez dagoenez, aukerarik ez dagoela dio. Bestalde, azaltzen du Idazkari jaunarekin hitz egin duela, eta aipatu diola nola 2016an Legebiltzarrean onartu zen beste lege edo dekretu bat, non, hor bai, esplizitoki bere laugarren artikuluan, klausula sozialak jasotzeko aukera jasotzen den. Orduan posible da hori pleguetan sartzea, posible ez dena horren gainean balorazioak egitea da, hau da, puntuazioren bat ematea klausula horiei. Segitzen du esaten beraientzat ez dela nahiko luketena, baina behintzat pauso bat litzatekeela pleguetan halako klausula sozialak agertzea, eta horregatik sartu dutela beraien emendakina.

Bozkatzera jarrita, Lasarte-Oriako Udalbatzarrak AHO BATEZ **ONARTU** egiten du hura.

Sometida a votación, el Pleno del Ayuntamiento de Lasarte-Oria por UNANIMIDAD **APRUEBA** la misma.

---

Ikusirik Zerbitzu Publikoen Batzorde Informatiboak, 2017ko azaroaren 21ean eginiko bilkuran eman zuen diktamina.

Visto el dictamen emitido por la Comisión Informativa de Servicios Públicos, en reunión celebrada el día 21 de noviembre de 2017.

Ikusirik Gobernu Batzordeak 1999ko azaroaren 2an eginiko bilkuran, Fomento de Construcciones y Contratas S.A. enpresari adjudikatu ziola, Bide

Visto que la Comisión de Gobierno en sesión celebrada el día 2 de noviembre de 1999, adjudicó a la empresa Fomento de Construcciones y Contratas S,A, el

Sareko Garbiketa Zerbitzua eta Hondakin Solido eta beste antzekoen jasotzea, 8 urtetarako adostua, bere kasuan urte beteko luzapenak egiteko aukerarekin.

Servicio de Limpieza Viaria y Recogida de Residuos Sólidos y otros afines, por un periodo de 8 años, prorrogables en su caso por periodos de un año.

Ikusirik urtez urteko luzapenak egiten joan dela eta Udalbatzarrak, 2017ko otsailaren 14an eginiko bilkuran, aipatutako kontratuaren luzapena onetsi zuela, kontratazio espediente berriaren bukaera arte.

Visto que se han venido realizando prorrogas anuales y que el Pleno Municipal, en sesión celebrada el día 14 de febrero de 2017 aprobó la prórroga del citado contrato hasta la finalización del nuevo expediente de contratación.

Ikusirik "Lasarte-Oriako Udalaren Bide-Sareko Garbiketaren Zerbitzua eta beste antzekoak" kontratazio espediente berria hasteko beharrizanaren txostena, Obra eta Zerbitzuen buruak emana, 31/17 zenbakia duena, 2017ko maiatzaren 19koa.

Visto el informe de necesidad de iniciar el nuevo expediente de contratación del "Servicio de Limpieza Viaria y otros afines del municipio de Lasarte-Oria", emitido por la Jefa de Obras y Servicios, nº 31/17, de 19 de mayo de 2017.

Ikusirik 2017ko azaroaren 8an eginiko Zerbitzu Publikoen Batzorde Informatiboan, Udalbatzarrari "Lasarte-Oriako Udalaren Bide-Sareko Garbiketaren Zerbitzua eta beste antzekoak" kontratazio espedientea onestea proposatu zitzaiola.

Visto que en la Comisión informativa de Servicios, en sesión celebrada el día 8 de noviembre de 2017, se propuso al Pleno Municipal la aprobación del expediente de contratación del "Servicio de Limpieza Viaria y otros afines del Ayuntamiento de Lasarte-Oria".

Ikusirik Udalbatzarrak 2017ko azaroaren 14an eginiko bilkuran, kontratazio espediente hau mahai gainean utzi zuela.

Visto que el Pleno Municipal se sesión celebrada el día 14 de noviembre de 2017, dejó sobre la mesa dicho expediente de contratación.

Berrikusirik espedientean agertzen diren klausula administratibo partikularren pleguak, eta preskripzio teknikoen plegua.

Vistos nuevamente los Pliegos de Cláusulas Administrativas Particulares y el Pliego de Prescripciones Técnicas que constan en el expediente.

Bozkatzera jarrita, Lasarte-Oriako Udalbatzarrak aldeko bederatzi botorekin (7 PSE-EE-PSOE, 2 EAJ-PNV) eta lau abstentziorekin (2 EH BILDU, 2 ADLOP), honako akordioak hartzen ditu:

Sometida a votación, el Pleno del Ayuntamiento de Lasarte-Oria con nueve votos a favor (7 PSE-EE-PSOE, 2 EAJ-PNV) y cuatro abstenciones (2 EH BILDU, 2 ADLOP), toma los siguientes acuerdos:

Lehena.- "LASARTE-ORIAKO UDALAREN BIDE-SAREKO GARBIKETAREN ZERBITZUA ETA BESTE ANTZEKOAK" adjudikatzeko kontratatzeko espedientea onestea.

Primero.- Aprobar el expediente de contratación para la adjudicación del "SERVICIO DE LIMPIEZA VIARIA Y OTROS AFINES DEL AYUNTAMIENTO DE LASARTE-ORIA".

Bigarrena.- Adjudikazio prozedura bezala adostea, prozedura irekia, abantaila handieneko eskaintza ekonomikoa, adjudikaziorako hainbat irizpide.

Segundo.- Acordar como procedimiento de adjudicación, el procedimiento abierto, oferta económica más ventajosa, varios criterios de adjudicación.

Hirugarrena.- Klausula administratibo partikularren plegua onestea, txertatu behar diren aldaketak gauzatuz, EH BILDU Udal Taldeak aurkeztutako emendakina, eta Idazkari Nagusiak aurkeztutako emendakin teknikoa onartu izanaren ondorioz, eta preskripzio teknikoen plegua onestea.

Tercero.- Aprobar el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares, con la incorporación de las modificaciones que se deben introducir como consecuencia de la aprobación de la enmienda presentada por el Grupo Municipal EH BILDU, y la aprobación de la enmienda técnica presentada por el Secretario General, y el Pliego de Prescripciones Técnicas.

Laugarrena.- Kontratuaren formalizazioraino, adjudikazio prozeduraren irekiera adostea, tramite guztien betearazpenarekin.

Cuarto.- Acordar la apertura del procedimiento de adjudicación con el cumplimiento de todos los trámites, hasta la formalización del contrato.

Bosgarrena.- Milioi bat sei mila seiehun eta hogeita hamaika euro eta hirurogei eta hamabost zentimoko (1.006.631,75€) gehi %10eko BEZ-a (100.663,17€), guztira milioi bat ehun eta zazpi mila berrehun eta laurogeita hamalau euro eta laurogeita hamabi zentimoko (1.107.294,92€) urteko kantitatea osatzen duen gastua baimentzea.

Quinto.- Autorizar un gasto por importe anual de un millón seis mil seiscientos treinta y un euros con setenta y cinco céntimos (1.006.631,75€) más el 10 % de IVA (100.663,17€), lo que asciende a un total de un millón ciento siete mil doscientos noventa y cuatro euros con noventa y dos céntimos (1.107.294, 92€).

Kontratuaren osotasunaren balore estimatua, luzapenak kontuan harturik, 6.643.769,52€koa da, BEZ-a barne.

El valor estimado para la globalidad del contrato, incluidas las prorrogas, asciende a 6.643.769,52€, IVA incluido.

Seigarrena.- Kontratazio berrietan Gipuzkoako Lan Hitzarmena aplikatzea.

Sexto.- Aplicar el Convenio Laboral de Gipuzkoa para las nuevas contrataciones.

Zazpigarrena.- Kontratazio berrietan kontratatutako langileen erdia emakume edota epe luzeko langabe izatea.

Séptimo.- Que la mitad de los nuevos trabajadores contratados sean mujeres y/o parados de larga duración.

Antxordoki jaunak hartzen du hitza boto azalpena egiteko eta esaten du batzordean abstenitu egin zirela, baina balorazio bat eginez, eta egin dituzten ekarpen gehienak aurrera eraman direnez, ados daude pleguak aurrera eramatearekin.

Toma la palabra el Sr. Naya y dice que el motivo de su abstención es que, a pesar de que entienden y saben que ha habido un trabajo muy intenso por parte del equipo de gobierno para trabajar en estos pliegos, visto un poco lo que paso en el anterior Pleno, en el que se dejaron encima de la mesa, la verdad es que ahora les da la sensación que todo ha sido deprisa y corriendo, con las enmiendas a última hora etc. Por eso les da un poco de pena no haber podido trabajar un poco más intensamente y en abierto con el resto de grupos, sobre todo el tema de las clausulas sociales. Por lo tanto, por un lado están contentos de haber podido introducir alguna enmienda y que además haya sido aprobada en consenso, pero por otro lado, el hacerlo deprisa y corriendo y a última hora, les genera ciertas dudas de si se podía haber hecho algo más con un poco más de tiempo.

Barrio jaunak hartzen du hitza eta esaten du alde batetik bat datozela orain ADLOP-ko bozeramaileak esandakoarekin, plegu hauek ez bait dira errazak, plegu hauen atzetik, gauza asko daude, oso elementu teknikoak askotan, eta ez da erreza jakitea edo asmatzea puntu baten atzetik errealitatean zer dagoen. Horregatik kasu honetan eta beste plegu mota batzuetan ere, konplexutasun teknikoak daudenean, gaiak aurretik landu behar direla dio, eta ez batzordera eraman ezer landu gabe, teknikariekin zalantza konpartitze bat eman gabe etab. Gaineratzen du horren ondorioz horrela ibili direla, Plenora eraman zen gaia lantzeko denborarik gabe, eta orain berriro ere korrika eta presaka ibili direla. Bestalde, azaltzen du lan bilera horietan, edo azaroko Plenoan baita ere, bertan agertzen ziren elementu batzuekin desadostasunak dituztela, zehazki kartel eta pankarten gaiari dagokienez. Aipatzen du pleguetan, pankarta eta kartelen garbiketa egunero egin beharko dela jasotzen dela, eta lan bileretan eta batzordean planteatu zutela, beraientzat egokiena epe bat ematea izango litzatekeela kartel horiek kentzeko. Iragartzen den ekintza, emanaldi, edo gertaera pasatzen denean, orduan kendu beharko liratekeela. Berresten du beraien iritzia hori dela, eta ez dela beraiek asmatutako zerbait, beste leku batzuetan horrela jokatzen bait dute. Jarraitzen du esaten ez zela hori onartu, beraz bai eskatzen dutela plegutan jasotzen dena kasu guztietan aplikatzea, zeren herri honetan kartel batzuk "desegokiak" direnean kendu egiten dira, hau da, Udalak jartzen dituen kartelak ere kendu egin beharko liratekeela egun berean, nahiz eta logika askorik ez

eduki horrek. Bestela klausula horren aplikazioaren atzetik zentsura politiko bat dagoela adieraziko luke, eta horrek ez luke lekurik eduki behar ez Lasarte-Orian, eta ez inon.

Toma la palabra el Sr. Alcalde y dice que el gobierno acepta críticas cuando cometen errores, el Pleno pasado se les criticó desde ADLOP que se habían comprometido a que después de vacaciones se pusiera en marcha la web municipal, y tienen que asumir que no han cumplido con los compromisos adquiridos. Pero lo que no pueden admitir es que digan que no se ha podido hablar con los técnicos, que se han mandado los pliegos y no han podido estudiarlos, etc. Añade que eso no es verdad, y no se puede admitir, porque desde el momento de que un tema va a comisión, tienen el expediente completo en el departamento. Y ninguno de ellos ha ido donde la Aparejadora Jefe a preguntarle en qué consistían los pliegos, a que se los explicaran, a que le dieran información de por qué había determinado ciertas cláusulas, o puntuaciones. Por lo tanto no pueden decir que no han tenido tiempo etc., cuando no han ido donde ella, y saben que tienen derecho como Concejales de este Ayuntamiento a tener toda la información, y a que los técnicos les den todas las explicaciones que tengan que darles. Por lo que no digan que esto viene deprisa y corriendo, cuando han tenido los plazos como en todos los pliegos, y visto que se dejó encima de la mesa el Pleno pasado, es cuando se decidió por parte del gobierno el tener una reunión con todos los portavoces, y con la técnico que ha elaborado los pliegos para dar todas las explicaciones. Reitera que no pueden decir que no han tenido la oportunidad de poderlo hacer, ya que saben que las puertas de los funcionarios están abiertas para toda la información que quieran recopilar, y no lo han hecho. Por lo tanto no puede aceptar la crítica de que digan que esto se trae deprisa y corriendo, y sobre todo, cuando han hablado de que ha entrado una nueva Ley de Contratación Pública. Sigue diciendo que la intención es sacar estos pliegos cuanto antes para que no les pille el toro con este tema, y por eso la intención de hacer todo lo antes posible. Pero no ha habido ninguna intención de no dar información, ni de impedirles que puedan hablar con los técnicos, ni que puedan conocer los pliegos si no los comprenden leyéndolos por su cuenta. Por lo tanto no puede admitir esa crítica.

Barrio jaunak hartzen du hitza eta esaten du aurreko ostiralean egon zen lan bileran, teknikaria egonda, eta alderdi guztiak egonda, oposiziotik eskatuta izan zela.

Toma la palabra el Sr. Alcalde y dice que sí, pero que si el Gobierno Municipal no quiere no se hubiera hecho, por lo que espera que se vea la voluntad de querer llegar a entendimientos.

Eta beste aztergairik ez dagoenez gero, goiburuan adierazitako eguneko 13:46 direlarik, lehendakari jaunak amaitutzat eman du batzarraldia, eta haren akta hau jaso da. Nik, idazkariak, akta honen edukiaren fede ematen dut.

Y no habiendo más asuntos que tratar, siendo las 13:46 horas del día indicado en el encabezamiento, el Sr. Presidente da por terminada la sesión, de la que se levanta la presente acta, de cuyo contenido yo, el secretario, doy fe.